

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresak behar bezela funtziona dezan, zenbait jarduera burutu beharko ditugu, garrantzitsuenak hurrengo hauek izanik:

Lehenik eta behin, webgunea behar bezela martxan jarri behar dugu. Webgunea edo online-denda *Guzumen* oinarria izango da eta honen bitartez lortzen ditugu gure helburuak betetzea eta bezeroarengana iristea. Horregatik, Aiora honetaz arduratuko den arren, aditu profesionalen zerbitzua eskura izango dugu uneoro.

Bigarrenik, Zumaiako enpresen eta gure arteko harremanaren fluxu konstantea mantentzea. Hauei laguntzea ematea da gure nahia eta batak besteari egiten dion mesedeari ahalik eta indar handiena ateraz.

Hirugarrenik, erosketa esperientzia positiboa bermatzea gure bezeroei. Erosketa erraza eta azkarra antolatu dugu: bi txandatan banatuta, alde batetik, 15:00-03:00 egiten diren eskariak goizean banatuko dira, 03:00-15:00 egiten diren eskariak ordea, arratsaldean banatuko dira, horrela itxaronaldia hamabi ordukoa izango da gutxi gorabehera.

Eta azkenik, bezeroei, enpresei... Komunitate sentsazio bat emanaz Zumaiari mesede eginez, arestian aipatu bezela. Gure helburua herriko enpresei ahotsa eta indarra ematea da, geure babesa eskainiz, eta baita herritarrei babesa bermatzea, guztiok herri txiki moduan ongizateaz gozatzeko, elkar onura eginez.

Jarraitzeko, Jon Mikel produktuak jaso eta hornikuntzaz arduratuko da. Honek esan nahi du, hornikuntzaz arduratuko den norbait bertan egongo dela, laguntzarik behar izanez gero bulego fisikora azaltzen diren erosleen premiei erantzuten. Hori gutxi izango balitz, eskaintzen dugun zerbitzua hobetzearen helburuarekin, bai webgunean eta bai dendan eskuragarri egongo dira erreklamazio-orriak, inongo kexarik ala iradokizunik egongo balitz bertan idazteko.

Partaideen lan banaketarekin jarraituz, Paulo *Gertu* merkataritza elkartearekin, Baleike aldizkariarekin eta udaletxearekin izango da une oro harremanetan, beraz harreman publiko lanetan arituko da, gainera, bulegoko lan kopurua handia izango denez, produktuak antolatu, biltegiatze lanak egiten lagunduko du, gainera zenbakiekiko trebetasuna duenez administrari lanetan ere arituko da. Aiora berriz, sare sozialak kudeatzen arituko da, eta horretarako beharrezkoak diren ekimen guztiak martxan jarriko ditu, sare-sozial desberdinetan kontuak zabaldu, ezagutzera eman eta informazioa eguneratu.

Bestalde, Elena, bulegoan bertan admistrari lana egingo du, produktuen erregistroa beronek eramango du eta diru sarrerak eta gastuak zein diren eta nola kudeatu behar diren bere esku egongo dira. Azkenik, Ainhoak, Jon Mikeli lagunduko dio produktuan dendetatik jasotzen eta bien artean banatuko dute lana, bestalde infortikari moduan arituko da, teknologiekin dauden arazoei aurre egiteko gaitasuna izango du, wifiazen arazoak, webguneko arazoak, etab.